



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_ORD_41092/21_05

513/2017 Errege Dekretuaren bidez arautzen diren suteetatik babesteko instalazioen esparruan zenbait alderdi garatzera datorren aginduaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzan, urriaren 4an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailaren zerbitzu juridikoak bidali digu, eta derrigorrezko txostena emateko ere eskatu digu.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko, 73/2021 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”.

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena irailaren 22koa da, eta Aholkularitza Juridikoaren txostena egun berekoa. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.



Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu zirela aginduaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak, beraz, bete da abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, aldez aurreko onarpenak aginduaren testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Xedapenaren edukia arakatu ondoren adierazten dut agindu honetan jasotakoak ez duela bestelako eraginik izango euskararen erabileran.

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria